

Naia Barandiaran Alonso


F maila • 3 saria

Kaixoooo! Naia naiz eta 8 urte ditut. 2008ko irailaren 22an jaio nintzen. Alkartasuna Lizeoan ikasten ari naiz LH 3.mailan.

Lehenengo aldia da niretzat lehiaketa honetan, eta sari hau irabazi dudala esan didatenean ezin nuen sinetsi! Izugarri poztu naiz. Nire familiari eskaintzen diot.

Gehien gustatzen zaidana dantza egitea eta abestea da, baina idaztea ere asko gustatzen zait, eta hemendik aurrera gehiago...

Benetan espero dut nire ipuina gustatzea!!



HAIZEA ETA LIBURUA

Bazen behin Haizea izeneko neska bat, 10 urte zituen. Ilea marroia zeukan eta begi urdinak. Bosgarren mailan zegoen, eta lagun asko zituen.

Gauza asko gustatzen zitzaizkion, adibidez: lagunekin jolastea, parkera joatea, txoropitoarena egitea ... baina bazegoen gauza bat pilo bat gustatzen zitzaiona: irakasle izatea.

20 urte beranduago, irakasle izateko aukera izan zuen eta lanean hasi zen. Ume txikiekin lan egiten zuen eta denek asko maite zuten.

Egun batean, eskolako zuzendariak esan zion:

- "Irakasle izaten jarraitu nahi baduzu, liburu berezi bat aurkitu behar duzu. Liburu magikoa da. Aurkitzen baduzu, munduko andereñorik onena izango zara. Ez dizut pista gehiago emango, bakarrik Afrikan dagoela".

Haizeak munduko irakasle onena izan nahi zuen, eta Afrikara joan zen bi aldiz pentsatu gabe. "Afrika oso-oso handia da, baina aurkituko dut liburua" pentsatu zuen.

Iritsi zenean egun askotan ibili zen nora joan jakin gabe. Jende asko ezagutu zuen, baina inork ez zekien liburu hura non zegoen.

Egun batean, pertsona batek esan zion:

- "Badago gizon zahar-zahar bat. Gauza asko dakizki, eta agian jakingo du zure liburu hori non dagoen".

- "Ados", esan zuen Haizeak. "Non bizi da?"

- "Ufff, oso urruti bizi da. Mendietako herri txiki-txiki batean".

Haizea abiatu zen, munduko andereño onena izan nahi zuelako, eta ez zitzaiolako inporta nora joan hori lortzeko.

Bi egun ondoren, iritsi zen mendietako herri txiki hartara. Neka-neka eginda zegoen. Baina bertako jendea oso jatorra zen, eta segituan eman zioten janaria, ura eta deskantsatzeko ohe bat.

Hurrengo egunean, gizon zaharrarengana joan zen, baina ez zekien ezer liburu hartaz. Haizea triste gelditu zen eta ohera joan zen negarrez. Orduan, herriko umeak etorri zitzaizkion, eta esan zioten:

- "Etorri gurekin jolastera eta oso ondo pasako duzu. Gainera, guk ez dugu andereñorik hemen eta nahiko genuke zu gure andereñoa izatea eta gauzak erakustea".

Haizea oso pozik jarri zen eta esan zien umeei:

- Ba, nahi baduzue, ni zuen andereñoa izango naiz".

Bost urte beranduago, Haizea oraindik herri txiki hartan bizi zen eta zoriontsua zen. Liburua ez zuen aurkitu, baina ez zuen behar munduko andereñorik onena izatea, zeren eta herri hartako umeentzat Haizea oso garrantzitsua zen, eta berarentzat umeak ere bai, eta horrekin nahikoa zuen.